

## Graduko 344 ikasle berri izango ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hasi berri den ikasturtean

2017/09/18

Dagoeneko, hasi dira eskolak jasotzen Graduko ikasleak Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Aurten, **344 Graduko ikasle berri** izango ditu fakultateak. Ikasle berri horietatik 177 dira Hezkuntza Gradu presentzialetakoak (Haur Hezkuntzako 65 ikasle eta Lehen Hezkuntzako 112), 117 Hezkuntzakoak, baina modalitate erdi-presentzialekoak eta, azkenik, 50 Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduko lehen mailakoak . **Guztira, 2017-2018 ikasturtean, fakultateak ditu matrikulatuta Graduko 1.104 ikasle.**

Ikasketak egiterako orduan, ikasle berriek aukeratu duten modalitateari dagokionez, 227 ikasle berri aukeratu dute aurrez aurreko modalitate; 117 ikaslek, ordea, egingo dute ikasketak modalitatea erdi-presentzian. Graduko ikasle kopuru osoari erreparatuta, 1.104 ikasletik, 886k egingo dute aurrez aurreko Graduko eta 218k, ordea, modalitate erdi presentzian.

Graduondoetako ikasleek urrian hasiko dituzte eskolak.



Lehen Hezkuntza Graduko 1. mailako ikasle berriak.